

**8/2019 AKTA**  
**NAFARROAKO UDAL ETA KONTZEJUEK FEDERAZIOAREN BATZORDE BETEARAZLEAK AZAROAREN**  
**19an EGINDAKO BILERA**

**BERTARATUAK:**

**LEHENDAKARIA:**

Juan Carlos Castillo Ezpeleta jn., Azkoiengo alkatea

**1. LEHENDAKARIORDEA:**

Mario Fabo Calero jn., Martzillako alkatea

**2. LEHENDAKARIORDEA:**

Ander Oroz Casimiro jn., Antsoaingo alkatea

**KIDEAK:**

Aitor Larraza Carrera jn., Irurtzungo alkatea  
Oihan Mendo Goñi jn., Garesko alkatea  
Jesús Esparza Iriarte jn., Kasedako alkatea  
Jesús María Arrizubieta Astiz jn., Tafallako alkatea  
Raúl Maiza González jn., Berriozarko alkatea  
Óscar Bea Trincado jn., Cintruenigoko alkatea  
David Alvarez Yanguas jn., Castejongo alkatea.  
Enrique Maya Miranda jn., Iruñeko alkatea.  
Pedro José Soto Eguren jn., Gesalazko alkatea.  
Manuel Romero Pardo jn., Aranguren Ibarreko alkatea  
Mikel Landabere Villanueva jn., Aurizberriko Kontzejuko burua  
Cristina Recalde Vallejo and., Artikako Kontzejuko burua  
Fernando Ferrer Molina jn., Erriberako Mankomunitateko lehendakaria  
Esther Lacasta Pérez-Illzarbe and., Basaburuako alkatea  
Itziar Semberoiz Garralda and., Espartza Zaraitzuko alkatea  
Ángel Martín Unzue Ayanz jn., Agoizko Alkatea  
David Oroz Alonso jn., Urdiaingo alkatea

**EZIN ETORRIA ADIERAZI DUTE:**

Alejandro Toquero Gil jn., Tuterako alkatea.  
Yolanda González García and., Vianako alkatea.

Iruñean, bi mila eta hemeretzi azaroaren hemeretzi, arratsaldeko bostetan, bigarren deialdian, aldamenean adierazitakoak bildu dira Nafarroako Udala eta Kontzejuen Federazioaren egoitzan (Tutera kalea, 20, 3. solairua, Iruña), Batzorde Betearazleko kideak baitira. Bilkuraren buru Juan Carlos Castillo Ezpeleta jn. aritu da, eta idazkari, berriz, Berta Enrique Cornago and. Hona hemen

**GAI-ZERREDA**

1. Aurreko bilkuraren aktaren informazioa eta onepena.
2. Batzorde eta Kontseilu sektorialeko buruzko informazioa.
3. Batzorde eta Kontseilu sektorialetako ordezkarien izendapena.
4. NUKFren Batzar Nagusi Arruntaren deialdia eta gai-zerrenda.
5. 2019ko kudeaketa txostena.
6. 2020ko jarduketaren programa.
7. 2020ko aurrekontua.
8. NUKFko Idazkari Nagusia.
9. Hiri Eremuak Berreskuratzeko 2019ko deialdiaren ebazpena.
10. Lehendakari karguari dagokion konpentsazio-ekonomikoaren proposamena.
11. Dietak eta kilometro-ordaina Batzorde Betearazlearen eta Toki Araubideko Foru Batzordearen saioretara joateagatik.
12. Lehendakariaren informazioa.
13. Galde-eskeak.

## **1. PUNTUA. Aurreko bilkuraren aktaren onespina**

Aurreko bilkuraren aktaren kopia igorrita deialdiarekin batera, aldez aurretik irakurri beharrik gabe, lehendakariak urriaren 29an egin zen Batzorde Betearazleko kideren batek oharren bat egin nahi ote duen galdetu du.

Alvarez jaunak, Castejongo alkateak, zuzenketa bat proposatu du hark galde-eskeen puntuan egindako esku-hartzeari dagokionez. Zehazki, puntu horretako hirugarren paragrafoari egin nahiko lioke zuzenketa. Zehaztu duenez, hitza hartu zuenean Batzorde Betearazleari eskatu zion ez onartzeko Ogasuneko Kontseilariak 2018ko ekitaldiko superabita zorra amortizatzeko erabiltzeko egindako proposamena. Aitzitik, Alvarezk proposatu zuen superabita gastu sozialetarako eta lehenengo beharreko zerbitzuetarako bideratzea diru hori Nafartar guztiona delako. Eta, horregatik, jendearen lehentasunezko beharretarako eta ez bankaren beharretarako bideratu beharko litzatekela adierazi zuela azpimarratu du Alvarez jaunak.

Zuzenketa aintzat hartuta,

### **ERABAKI DA:**

2019ko urriaren 29an egin bilkuraren akta onestea.

## **2. PUNTUA. Batzorde eta kontseilu sektorialeko buruzko informazioa.**

Honako informazio hau eman da egindako batzorde eta kontseilu sektorialen gainean:

- **Nafarroako Merkataritza Kontseilua (2019/11/08).** Kontseiluaren ordezkariak adierazi duenez, kide berriak aurkeztu ziren eta Ekonomia Sustatzeko Guneen buruzko Foru Legearen aurreproiektuaren tramitazioari buruzko informazioa eman zen, udalentsako interesgarria izan daitekeena.
- **Nafarroako Gardentasun Kontseilua (2019/11/18).** Gardentasun Kontseiluaren kide berriak aurkeztu eta dagozkion erreklamazioak tramitatu ziren.

### **ERABAKI DA:**

Jakinaren gainean daudela adieraztea.

## **3. PUNTUA. Batzorde eta Kontseilu sektorialetako ordezkarien izendapena**

Idazkari Nagusiak adierazi du Hondakinak Kudeatzeko Batzordean ordezkari bat beharrian bi izendatzea onartu dela eta, horregatik, Fernando Ferrer Molina Erriberako Mankomunitateko lehendakaria ere batzordeko ordezkari izendatu dutela.

Espainiako Udal eta Probintzien Federazioko Lurralde Kontseiluari dagokionez, berriz, hiru ordezkari izendatu beharrian bi izendatu behar direla argitu du. Beraz, izendatu beharreko pertsonak lehendakaria eta lehendakariorde lehenengoa direla ulertu beharra dago.

Honako izendapen hauek proposatu dira batzorde eta kontseilu sektorialetarako:

- Despopulazioaren kontra borrokatzeko Batzordea
  - Juan Carlos Castillo Ezpeleta, Azkoiengo alkatea eta NUKFko lehendakaria
  - Mario Fabo Calero, Martzillako alkatea eta NUKFko 1. lehendakariordea
  - Ander Oroz Casimiro, Antsoingo alkatea eta NUKFko 2. lehendakariordea
- Nafarroako Estatistika Kontseilua.
  - Juan Carlos Castillo Ezpeleta, Azkoiengo alkatea eta NUKFko lehendakaria.

Oroz jaunak, Antsoingo alkateak, adierazi du komeniko litzatekeela Despopulazioaren kontra borrokatzeko Batzordean arazo hori pairatzen duten entitateetako ordezkariak parte hartzea.

Hori horrela, Landabere jaunak, Aurizberriko Kontzeju buruak, batzordean parte hartzeko interesa adierazi du.

#### **ERABAKI DA:**

Honako ordezkari hauen izendapena onestea:

- Despopulazioaren kontra borrokatzeko Batzordea
  - Juan Carlos Castillo Ezpeleta, Azkoiengo alkatea eta NUKFko lehendakaria
  - Mario Fabo Calero, Martzillako alkatea eta NUKFko 1. lehendakariordea
  - Mikel Landabere Villanueva, Aurizberriko Kontzejuko burua.
- Nafarroako Estatistika Kontseilua.
  - Juan Carlos Castillo Ezpeleta.

#### **4. PUNTUA.- NUKFren Batzar Nagusi Arruntaren deialdia eta gai-zerrenda.**

Proposatzen da NUKFren Batzar Nagusi Arruntaren bilkura 2019ko abenduaren 13an egitea, Iruña Park hotelean, 16:30ean lehendabiziko deialdian, eta 17:00etan, berriz, bigarrenean. Hona hemen gai-zerrenda:

- 1.- 2018/12/14ko eta 2019/10/4eko batzarretako aktak onestea.
- 1.- 2018ko Kontuak onestea.
- 2.- NUKFren 2019ko Kudeaketa Txostena onestea.
- 4.- NUKFren 2020ko Jarduketan Programa onestea.
- 5.- NUKFren 2020ko Aurrekontua onestea.
- 6.- Idazkari Nagusia.
- 7.- NUKF Elkartearen Legea egokitzea.
- 9.- Galde-eskeak.

## **ERABAKI DA:**

Batzar Nagusi Arrunterako deia onestea proposatutako moduan.

### **5. PUNTUA. 2019ko kudeaketa txostena**

Lehendakariak kudeaketa txostenaren punturik aipagarrienak azaldu ditu. Txosten hori Batzorde Betearazlearen deialdiarekin batera igorri da NUKFren Batzar Nagusi Arruntaren onespenera jarri gogo baita. Lehendakariak adierazi ditu kudeaketa txostenean aipatzen diren alderdietatik berak zeinetan parte hartu duen.

Hitza eman zaie bertaratutakoei.

Alvarez jaunak, Castejongo alkateak, hitza hartu du esanez beharrezkoa dela Etengabeko Trebakuntza Plana bizkortzea eta gehiago deszentralizatzea.

Batzorde betearazlearen onespenera jarrita, aldeko hamalau botorekin eta lau abstentziorekin,

Gehiengoz,

## **ERABAKI DA:**

NUKFren 2019ko Kudeaketa Txostenaren proposamena onestea, zeina aktara erantsi baita, eta NUKFren Batzar Nagusi Arruntaren onespenera jartzea.

### **6. PUNTUA. 2020ko jarduketaren programa.**

Lehendakariak jarduketaren programan aurreikusten diren ekintza guztiak azaldu ditu. Bereziki azpimarratu du Toki Administrazioa Berrantolatzeke Foru Legearen aplikazioa martxan jartzeko eta horri jarraipena egiteko lanean jarraitu beharra, NUKFko Batzar Nagusiak onetsitakoari jarraiki.

Era berean, finantzazioaren arloari dagokionez Nafarroako Gobernuari helarazi behar zaizkion eskaerak eta administrazio elektronikoaren sustapenean lanean jarraitu beharra ere aipatu ditu.

Ondoren, hitza eman zaie bertaratutakoei.

Oroz jaunak, Antsoingo alkateak, adierazi du jarduketaren programa ez dela guztiz zehatza.

Toki Administrazioa Berrantolatzeke Foru Legeari dagokionez, bere ustez NUKFren eskaerak kontuan hartzea da garrantzitsuena eta horiek lantzen eta martxan jartzen jarraitzea. Jarduketaren programan, dagokion puntuan, hala jaso beharko litzatekeela uste du.

Horretaz gain Oroz jaunaren iritziz despopulazioari dagokionez, Lurralde Kohesiorako Departamentuarekin egiten diren jarduketaz gain, ekimen propioak ere egin beharko lirateke. Horrenbestez, proposatu du jarduketaren programan gehitzea NUKFk beharrezkotzat joko dituen jarduerak eta jardunaldiak egiten dituela despopulazioaren arazoaren inguruan kontzientzia pizteko.

Jasangarritasunari eta klima aldaketari dagokionez, berriz, Ander Oroz jaunak, uste du jarduketen programan NUKFren ekimeneko jarduerak eginen direla gehitu beharko litzatekeela. Horri dagokionez, lehendakariak bere adostasuna adierazi du. Horretaz gain esan du ona litzatekeela jarduerak egitea Alkateen Hitzarmenari eta bertan ezarritako helburuak lortzeko martxan jarri daitezkeen proiektuei bultzada emateko baita horren inguruko informazioa zabaltzeko ere.

Fabo jaunak, Martzilako alkateak, jakin nahiko luke NUKFk zer jarrera hartuko duen Toki Administrazioa Berrantolatzeke Foru Legea aplikatzeari dagokionez.

Romero jaunak, Aranguren Ibarreko alkateak, ordea, adierazi du zalantza asko dagoela. Ez dago argi lege horrek ezartzen dituen gauzen artean zeintzuk diren dagoeneko aplikatu daitezkeenak eta zeintzuk behar duten alde zuzeneko arau garapenen bat. Horrekin jarraituz adierazi du, komeniko litzatekeela txosten bat egitea zalantza horiek argitzeko, toki entitateek argi eduki dezaten gaia.

Idazkari nagusiak ere bere adostasuna adierazi du esandakoen inguruan eta bat dator halako txosten bat egiteko behararekin. Zerbitzu teknikoek horretan lanean jardungo dutela esan du.

Lehendakariak, aldiz, NUKFk mapa berrantolatzeke legearen aurrean izanen duen jarrerari dagokionez esan du, oso zaila dela denen gustukoa den toki administrazioaren berrantolaketa bat onestea. Hala ere, beharrezkotzat jo du toki administrazioa egungo egoerara egokitzea eta ohartarazi du arrisku handia litzatekeela berrantolaketa hori bertan behera uztea.

Batzorde Betearazlearen onespenera jarrita, egindako ekarpenak aintzat harturik eta aldeko hamalau botorekin eta kontrako seirekin

Gehiengoz,

#### **ERABAKI DA:**

Jarduketen programa onestea Batzar Nagusiaren onespenera jartzeko.

#### **7. PUNTUA. 2020ko aurrekontua.**

Aurrekontua baino lehen, lehendakariak jakinarazi du Batzar Nagusian 2018ko kontuak ere onetsi eginen direla. Normalean, ekaineko ezohiko Batzar Nagusian onetsi ohi dira kontuak baina 2019ko udal hauteskundeak direla eta, ez zen batzar hori egin.

Azaldu duenez, aurten bai eginen da ekaineko Batzar Nagusia federazioko parte-hartzea eta informazioa berrindartzeko. Batzordearen onespenera jarriko diren kontuak aurreko Batzorde Betearazleak onetsitako proposamena dira.

Hori kontuan izanik, egungo batzordeak ez du proposamena berriro onetsi behar baina lehendakariak komenigarria ikusi du kontu horien inguruko informazioa ematea.

Horrenbestez, Fermín Cabases aholkulari ekonomikoak hitza hartu eta elkarte izaera duen entitate gisa NUKFri aplikatzen zaion kontabilitate sistema eta aurrekontua azaldu ditu. Geserlocalen kontuak ere aipatu ditu; joan den legegintzalditik ona NUKFren kontuek Geserlocalen kontuen inguruko informazioa ere jasotzen dutelako. Izan ere, Geserlocal sozietatearen xede nagusia toki entitateen premiamendu bidezko diru-bilketa izanik, NUKFk % 97ko parte-hartzea baitu sozietate horretan eta gainontzeko % 3a Zangoza, Erriberri eta Lizarrako Udaletako parte-hartzeari baitagokio.

Maiza jaunak, Berriozarko alkateak, galdetu du ea toki entitateek NUKFren bitartez Geserlocal sozietatearen inguruan erabakitzeko tarterik ote duten. Azaldu diotenez, sozietateak organo propioak ditu: administrazio kontseilua eta bazkide guztiek osatzen duten Batzar Nagusia.

Gerakinaren inguruan Oroz jaunak, Antsoaingo alkateak, eta Oroz jaunak, Urdiaingo alkateak, adierazi dute NUKFren aurrekontua ikusirik gerakina handia dela eta zertara bideratuko den jakin nahi dute.

Lehendakariak erantzun die gerakina hor dagoela eta toki entitateentzako interesekoa den zerbaitetan erabiliko dela.

Ondoren, 2020ko aurrekontuen proposamena azaldu dute.

Alvarez jaunak, Castejongo alkateak, adierazi du administrazio elektronikoa ezartzearen inguruan eta datuen babeserako araudia betetzearen inguruan zerbait egin beharra dagoela. Jardunaldiak egiteko beharra proposatu du langile teknikarientzat eta hautetsientzat. Bestalde, Animsak ere jardun beharra duela aipatu du.

Maya jauna, Iruñeko alkatea, bat dator Alvarez jaunak esandakoarekin eta uste du Animsak bultzatu eta bizkortu behar duela administrazio elektronikoaren ezarpena udaletan.

Bozkatu ondoren, aldeko hamairu botorekin eta 5 abstentziorekin,

Gehiengoz,

#### **ERABAKI DA:**

2020ko aurrekontuen proposamena onestea Batzar Nagusiaren onespenera jartzeko.

#### **8. PUNTUA. NUKFko Idazkari Nagusia.**

Lehendakariak azaldu du estutuei jarraiki, Batzar Nagusiak Idazkari Nagusia izendatu behar duela Batzorde Betearazleak aldez aurretik proposatuta.

Horrenbestez, 2016ko urtarriletik karguan den Berta Enrique Cornago NUKFko aholkulari juridikoa proposatu du Idazkari Nagusiko karguan jarraitzeko.

Alvarez jaunak hitza hartu eta proposatutakoarekin ados agertu da. Horretaz gain, idazkariaren lana eta ahalegina aintzatetsi du baita NUKFren langile guztiena ere.

Oroz jaunak, Antsoingo alkateak, ere bere esker ona adierazi du.

Batzorde Betearazlearen onespenera jarrita, gehiengoz,

**ERABAKI DA:**

Berta Enrique Cornago idazkari nagusi izendatua izateko proposamena onestea Batzarraren onespenera jartzeko.

**9. PUNTUA. Hiri Eremuak Berreskuratzeko 2019ko deialdiaren ebazpena.**

Lehendakariak azaldu duenez, deialdia La caixa eta CAN banku fundazioekin ekainean izenpetutako hitzarmen berri baten barruan kokatzen da. Adierazi du, deialdiak helburu duela Giza Eskubideen Departamentuko eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuko deialdien barruan kontratatutako langileek egindako lanetan erabili diren materialen gastuak finantzatzea. Aurreko urtean bezala, 90.000 euroko zenbatekoa duen deialdia diseinatu da 2.000 biztanle baino gutxiago dituzten toki entitate guztiek parte hartu eta laguntzak jaso ahal izateko. Hori lortzeko, norgehiagokako araubideko sistema bat ezarri da non esleitutako diru kopurua eskatutako gehieneko dirulaguntza guztiekin zatituta ateratzen den portzentajea aplikatuko den.

Lehendakariak zehaztu du 53 eskaera egon direla eta horrek 140 pertsonen kontratazio partziala ahalbidetu duela.

Adierazi denez, deialdiak berak aurreikusten duen Balorazio Batzordeak eginiko txosten batean oinarriturik egin da proposamena.

Aho batez,

**ERABAKI DA:**

Hiri Eremuak Berreskuratzeko 2019ko deialdiaren ebazpena onestea, akta honen eranskin modura doan txostenean jasotzen den moduan.

**10. PUNTUA. Lehendakari karguari dagokion konpentsazio-ekonomikoaren proposamena.**

Lehendakariak karguari dagokion honako konpentsazio-ekonomiko hau proposatu du:

NUKFko lehendakaria Azkoiengo Udaleko alkate gisa hautatua izan zen Federazioko lehendakari. Bi kargu horiek bateragarri egin behar direla kontuan harturik eta udal horretan arduraldi eskusiboko kargua eta dagokion ordainsaria duela jakinik, konpentsazio sistema bat ezartzea proposatu da. Horren arabera, Batzorde Betearazlea adosten duen lehendakari karguaren arduraldiari dagokion zenbatekoa ordainduko lioke NUKFk Azkoiengo Udalarari.

Hori guztia arautzeko, dagokion hitzarmena izenpetuko litzateke Azkoiengo Udalarekin.

NUKFko lehendakari karguari dagokion zenbatekoa finkatzeko, aurreko lehendakariak antzeko sistema baten bidez jasotako zenbatekoa erreferentzia gisa hartzea proposatu da, arduraldia kasu honetan ere aurreko lehendakariaren antzekoa izango baita. Beraz, NUKFk ordainduko lukeen zenbatekoa urtean 18.000 euro gordin litzateke eta, horretaz gain, Azkoiengo Udalak diru-sarrera horrengatik ordaindu beharko litzuzkeen gizarte segurantza gastuak ere Federazioak ordainduko litzuzke.

Lehendakari kargutik eratorritako joan-etorri gastuak kopuru horretatik kanpo egongo lirateke eta NUKFk ordainduko litzuzke tokian tokiko benetako kostua ordaintzeko.

Lehendakariak ez luke eskubiderik izango ordainsaririk jasotzeko NUKFko lehendakari gisa kide den organoetara joateagatik.

Horrenbestez, honakoa proposatu da:

LEHENBIZIKOA. NUKFko lehendakari karguari dagokion proposatutako ordainsari sistema onestea 2019ko urriaren 4tik hasita eta, ondorioz, lehendakariari baimena ematea Azkoiengo Udalarekin dagokion hitzarmena egiteko.

BIGARRENA. Lehendakariaren ordainsaria urteko 18.000 euro gordinean finkatzea. Horretaz gain, NUKFk beregain hartuko ditu ere bai Azkoiengo Udalak diru-sarrera horrengatik ordaindu beharko litzuzkeen gizarte segurantza gastuak.

Gehiengoz, bost abstentzio daudela,

#### **ERABAKI DA:**

LEHENBIZIKOA. NUKFko lehendakari karguari dagokion proposatutako ordainsari sistema onestea 2019ko urriaren 4tik hasita eta, ondorioz, lehendakariari baimena ematea Azkoiengo Udalarekin dagokion hitzarmena egiteko.

BIGARRENA. Lehendakariaren ordainsaria urteko 18.000 euro gordinean finkatzea. Horretaz gain, NUKFk beregain hartuko ditu ere bai Azkoiengo Udalak diru-sarrera horrengatik ordaindu beharko litzuzkeen gizarte segurantza gastuak.

#### **11. PUNTUA. Dietak eta kilometro-ordaina Batzorde Betearazlearen eta Toki Araubideko Foru Batzordearen saioetara joateagatik.**

Batzorde Betearazlearen eta Toki Araubideko Foru Batzordearen saioetara joateagatik dagozkion dietei eta kilometro-ordainari dagokienez, egungoak mantentzea proposatu da.

Mayak aditzera ematen du Batzorde Betearazlera eta Toki Araubideko Foru Batzordera joateagatik dagozkion dietei uko egiten diela.

#### **ERABAKI DA:**



Honako kopuruak finkatzea: 60 euro gordin Batzorde Betearazlearen eta Foru Batzordearen saioretara joateagatik eta, kilometro-ordainari dagokionez, kilometro bakoitzeko 0,30 euro.

### **BESTELAKO GAIAK. Atxikimendu eskaerak.**

Idazkari nagusiak azaldu du Batzorde Betearazlearen deia egin eta beranduago bi atxikimendu eskaera aurkeztu direla. Adierazi duenez, estatutuei jarraiki, federaziora atxikitze toki entitateak akordioa onetsi beharko du eta NUKFri jakinarazi. Ondoren, Batzorde Betearazleak atxikimendu eskaera hori aintzat hartu beharko du eta hortik aurrera dena delako toki entitate hori federazioko kide izanen da.

Horrenbestez, idazkari nagusiak Ultzurruneko eta Gerendiango kontzejuen atxikimendu eskaerak aintzat hartzea proposatu du.

### **ERABAKI DA:**

Bi kontzeju horien eskaerak aintzat hartzea eta, horrenbestez, aipatu kontzejuak NUKFko kide bihurtuko dira bilkuraren egunetik aurrerako ondorioekin.

## **12. PUNTUA. Lehendakariaren informazioa**

Lehendakariak honako gai hauek aipatu ditu:

- Lurralde Kohesiorako eta Toki Administrazioaren Kontseilari berriarekin urriaren 31n izandako bilera. Bertan, departamentuarekin zerikusia duten gaien laburpena egin zen: toki administrazioaren berrantolaketa, administrazio elektronikoari dagokion lankidetzeta eta despopulazioa.
- Egun berean Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariarekin izandako bilera. NUKFrekin batera lantzeko gaiak aipatu ziren: bakarrik dauden adin txikiko atzerritarrak eta etxegabetzeen hitzarmena.
- Gobernuko lehendakariarekin eta zenbait toki entitatetako ordezkariarekin azaroaren 12an izandako bilera. NUKFren kezka diren gaien proposamena aurkeztu zen.
- Barne Departamentuaren ekimenez sortutako zenbait talde.
- NABlrekin elkarlanean datorren azaroaren 28an egingen den Berdintasunari buruzko jardunaldia.
- Toki Araubideko Foru Batzordearen aurrean aurkeztu beharko diren xedapen arauemaileak.
- KONTSEILUAKo ordezkariarekin izandako bilera udal mailan euskara kultura eta aisialdi jardueren bidez sustatzeari buruzko protokolo bat aurkezteko.
- Parlamentuaren eta udalen osaera demokratikoaren 40. urteurrena parlamentuarekin batera ospatzeko azaroaren 4ko ekitaldia. Adierazienez, ekitaldian parlamentuak onetsitako eta toki entitateak barne hartzen dituen adierazpen instituzional bat irakurriko da.

### **ERABAKI DA:**

Jakinaren gainean daudela adieraztea.

### **13. PUNTUA- Galde-eskeak.**

Arrizubieta jaunak, Tafallako alkateak, jakinarazi du Bizkaian 83an uholdeak jasandako herri bateko alkate baten gutunarekin batera, uholdeek eragindako kalteak konpontzeko dohain bat jaso duela. Gutunean, alkateak bere esker ona adierazten zion Tafallako Udalarari bere garaian bertatik bolondresez betetako autobusa bidali baitzuten Bizkaiko herriari uholdeen kalteak konpontzen laguntzeko.

Hori horrela, proposatu du hondamendi egoeran, zailtasunekin eta abar dauden udalei zuzeneko laguntza emateko, aurrekontuetan partida bat sortzeko aukera.

Horrekin batera, Tafallari laguntza eman dioten udal guztiei eskerrak eman dizkie.

Oroz jaunak, Antsoingo alkateak, elizak immatrikulatutako ondasunen taldearen eta hutsik dauden etxebizitzaren eroldaren inguruan galdetu du.

Idazkari nagusiak aurreko legegintzaldian sortutako talde horren xedea eta orain arte egindako lana azaldu du. Adierazi duenez, Batzorde Betearazleak erabaki beharko du taldea berriro martxan jarri nahi duen.

Hutsik dauden etxebizitzaren eroldari eta zergari dagokionez, azaldu du Foru Dekretu bat onetsi zela errola hori eta hutsik dauden etxebizitzaren alta, Nafarroako Gobernuari dagokiona, arautzen duena. Zehaztu duenez, etxebizitza bat alta emanda dagoenean soilik likidatu daiteke zerga. Era berean, idazkari nagusiak adierazi du galdetu egingen dutela aurreikuspena zein den eta eroldaren sorrera hori zertan den.

Alvarez jaunak babesa adierazi dio Arrizubieta jaunak egindako proposamenari. Era berean, proposatu du Parlamentuak onetsitako adierazpen instituzionala udalei igortzea osoko bilkuretan onetsi ahal izateko.

Eta aztergai gehiagorik ez dagoela, presidente jaunak bilkura amaitutzat eman du, goiburuan aipatzen den eguneko hemerretziak eta hamabost minutu direnean. Idazkari naizen honek honako akta idatzi eta horren fede ematen dut, eta lehendakariarekin sinatu dut.

LEHENDAKARIAREN ONIRITZIA,

IDAZKARIA,

Juan Carlos Castillo Ezpeleta jn.

Berta Enrique Cornago and.

